

A stylized illustration of a woman in profile, walking towards the right. She has dark skin and is carrying a large, colorful globe of the Earth on her head. She is wearing a white tank top with pink scribbles and a long, patterned skirt with orange, yellow, and black designs. Her feet are in simple sandals. The background is a solid light brown color.

Ermua
2015

**XV INMIGRAZIO
JARDUNALDIAK**

**XV JORNADAS
DE INMIGRACIÓN**

Maiatzak 22-30 Mayo

**Emakumeek eusten
diote munduari**

**Las mujeres
sostienen el mundo**

EGITARAUA

Maiatzak 22 ostirala - 18:30 - Lobiano

Aniztasunaren eskola: TAILERRA: "Dena nire seme-alabengatik", Ama etorkinak, seme-alaben gizarteratzearen aurrean. Estitxu Peredak zuzendua (EVNTF-ko kidea- Escuela Vasco-Navarra de Terapia Familiar).

Maiatzak 25 astelehena - 18:00 - Lobiano

Atzeritartasuneko araudiari buruzko informazio saioa: **"Nazionalitatea eskuratzea"**, Eusko Jaurkitaren zerbitzu juridikoen eskutik

Maiatzak 27 astelehena - 19:00 - Lobiano

HITZALDIA: "Emakumeek Munduari eusten diote. Zainketen Mundu mailako kateak", Trinidad Vicente-rekin, Deustuko Unibertsitateko ikertzailea

Maiatzak 28 osteguna - 20:30 - Ermua Antzokia

ZINE-KLUBA: "Camino a la escuela", Pascal Plisson-ena (Frantzia) *Mudo-Drogot-en eskutik*

Maiatzak 30 larunbata - Goizeko 11etatik aurrera, Ermuko Plazan

KULTUR ARTEKO JAIA

-11:00etan: Jai hasierako ikuskizuna, ERMUKO KULTUR ARTEKO ANTZERKI TALDEAREN eskutik, Sutegi Antzerkia, Txindurri eta Txanpras-en laguntzaz

-11:30etan: Haurrentzako jokuak , Antxitxiketan-ekin

-11:30etan: PERKUSIO TAILERRA Mustapha Agharban-ekin

-13:00etan: Kontzertua: "LA BANDITA" talde kubatarrekin

-14:30etan: Kultur-arteko BAZKARI HERRIKOIA

-17:00etan: I BORROKA SENEGALDARRAREN TXAPELKETA "JAPO LYGUEY" perkusio afrikarraren taldeak girotua

-19:30etan: "MED ZIANI & AMAZIGH GROOVE PROJECT" talde bereberearen kontzertua

*Eta gainera: Hennazko tatuajeak, txirikorda afrikarrak, azkazalen margoketa kolonbiarra, idatzi zure izena arabieraz, Ermuko ikastetxeetan egindako hormirudia eta marrazkien erakusketa ...

**Jardunaldiak zehar, aurreiritzien eta arrazakeriaren inguruko "ARGI IBILI" ekimena egingo da Ermuko ikastetxeetako lehen hezkuntzako kurtsoetan.*

Organizatzaileak

EGUARBITZA Misio Taldea | Komite Internazionalistak
Urko-Punta | Caritas | "HAGUNIA" Herri Saharaiaren Lagunen Elkarte
"ASER" Asociación de Senegaleses de Ermua
"PAACE" Ermuko Afrikarren Elkarte | Maishule

Laguntzaileak

Mudo-Drogot | Ermuko Ikastetxeak
Antxitxiketan | Sutegi Antzerkia | Txindurri



Babeslea



Ayuntamiento de Ermua
Ermuko Udala

EMAKUMEEK EUSTEN DIOTE MUNDUARI, BAINA HAIEN LANAREN ZATI HANDI BAT EZ DA AITORTZEN, EZ BALIOESTEN.

Emakumeen lanak ez du aitorpenik jasotzen ikuspuntu ekonomikotik.

Balioztapen ekonomikorako, merkatuan balioa duena besterik ez da hartzen kontuan, alegia, eros eta sal daitekeena. Baina ondasun eta zerbitzu askok balio handia dute: etxeo lanekin eta zaintzarekin loturiko guztiak, familiartean ekoiztako eta kontsumituriko

ondasunei dagokienak, bizirauteko laboreek, lan komunitarioek, etab. Eginkizun horiek ez dira komertzializatzen eta, ondorioz, ekonomian ez dira aintzat hartzen, nahiz eta erabat beharrezkoak izan bizitzari eusteko. Egiteko horiek, planeta osoan, ia emakumeek bakarrik egiten dituzte.



Afrikan, ekonomia produktiboan (edo merkatura daitekeen horretan) lan egindako orduen % 44 emakumeek betetzen dituzte.

Latinoamerikan, orduen % 28; eta Asian, % 36.

Baina... lan produktibo horri erantsi behar zaio emakumeek egiten dituztela herrialde horietan ordaindu gabeko lanen, hau da, merkatura ezin daitezkeen % 66.

Planetako landa-eremuetan, emakumeek eta neskatilek garatzen dituzte ordaindu gabeko jarduerak. Adibidez, Kenian emakumeek ia 45 ordu ematen dituzte astean landatzen, egurra eta ura biltzen, sukaldean egiten eta garbitzen; gizonek, aldiz, 20 ordu besterik ez dute ematen astean. Neskatilek askoz ere denbora gehiago jarduten dute jarduera horiek egiten mutikoek baino.



Alabaina, lurra eta ura agortzen direnean, lan handia egin behar da elikagaien eta zerbitzuen ekoizpen-maila berari eusteko.

Hainbat adibide: Himalayan, duela belaunaldi bat gehienez 2 ordu behar izaten zituzten egunean egurra biltzeko. Egun, deforestazioa dela-eta, egun osoa behar dute, eta nekez igo behar dira askoz ere gorago. Sudanen, egurra biltzeko

eman beharreko denbora laukoiztu egin da hamarkada batean. Mozambiken, emakumeek 15 ordu baino gehiago ematen dituzte astean ura eskuratzen, eta Senegalen 17 ordu. Azkenik, basamortutzea arazo den eremuetan, emakumeek lau ordu eman ditzakete egunean ura eskuratzen.




Herrialde industrializatuetan, emakumeek merkatura daitekeen lanaren zati garrantzitsu bat betetzen dute, ordainduta, baina baita merkaturatzen ez den beharraren % 66 ere, ez dena herrialdeen BPGn zenbatzen, hala:



“Emakumeek ekarpen esanguratsuak egiten dizkiote landa-ekonomiari garapen-bidean dauden herrialdeetako eskualde guztietan. Haien rola desberdinak dira eskualdeen arabera, nahiz eta beti izaten duten gizonek baino ahalmen txikiagoa produktiboagoak izateko beharrezkoak dituzten baliabideak eta aukerak eskuratzeko. Handituko balitz emakumeen ahalmena lurra, abeltzaintza, hezkuntza, finantza-zerbitzuak, landa-arloko hedapena, teknologia eta lana eskuratzeko, haien produktibitatea areagotu egingo litzateke, hala nola nekazaritzako ekoizpena, elikadura-segurtasuna, hazkunde ekonomikoa eta gizarte-ongizatea. Nekazaritzako sargaien esparruan genero-arraila ixteak, horrek bakarrik, 100-150

milioi lagun atera litzake gosetetik. Ez dago jarraibide zehatzik genero-arraila ixteko, baina zenbait oinarritzko printzipio unibertsalak dira: gobernuak, nazioarteko komunitatea eta jendarte zibila elkarrekin aritu behar dira lanean legearen esparruan diskriminazioak desagerrarazteko, baliabide eta aukeren eskuragarritasunerako berdintasuna sustatzeko, nekazaritzaren arloko politikek eta programek genero-ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzeko, eta, garapen iraunkorraren alde, kide gisa emakumeen ahotsa berdintasunean entzunarazteko. Nekazaritzan genero-berdintasuna eta emakumeen jabekuntza lortzea bidezkoa ez ezik, funtsezkoa ere bada nekazaritzaren eta elikadura-segurtasunaren garapenerako”.



11 bilioi munduko emakumeek eragiten dituzte

**Munduko produktuen lan
“ikusezinak” eragiten dituen 16
bilioi dolarretatik, 11 bilioi munduko
emakumeek eragiten dituzte.**

*(“Giza Garapenari buruzko Txostenak 1995”
lanetan oinarrituta, Harla S.A. de C.V. México-k
Garapenerako Nazio Batuen Programarako (PNUD)
argitaratuta)*



Emakumeek eusten diote munduari

Zainketak dira sistema sozioekonomikoaren oinarri ikusezina.

Merkatuen funtzionamendua, egitura politikoen bilakaera, kulturaren eta pentsamenduaren sorkuntza... garapenaz hitz egiteko ebaluatu ohi dugun horrek guztiak nahitaezko baldintza bat dauka: pertsonen bizitzaren eta osasunaren eguneroko produkzioa eta erreprodukzioa, hau da, haien guztien zainketa-multzoa.

Esan dezakegu sistema sozioekonomikoen oinarria direla.

Nor, nola eta zeren truke arduratzen da haietaz? Erantzuna ez da inolaz ere erraza, baina gutxienez bi ezaugarri aipa daitezke:

- 1. zaintzaren ardura emakumeen eginkizuntzat jotzen da.**
- 2. doakotasuna: zainketen zati handi bat diruzko ordainsaririk jaso gabe egiten da.**

Zainketak uneoro daude hor, pertsonen bizitzari eusten, baina ez diegu aitortzen eskaintzen, eta ziurtzat jotzen dugu egon badaudela eta mugarik gabeko malgutasuna dutela. Haien ikusezintasunak dohainik balia daitezten ahalbidetzen du, gizarte-birtoikuntzarako osagai gisa; zainketek eskatzen dituzten ezinbesteko eginkizunak ia emakumeek bakarrik betetzen dituzte mundu osoan.

Zainketak dagoeneko mundu-mailakoak dira:

Zainketen mundu-mailako kateak

Oso gutxi hitz egiten dugu zainketez, baina, gainera, argitara ekartzea erabakitzen dugunean, estatuaren lurraldetasun-esparruan mugatzera jotzen dugu. Zainketak aztertzen ditugu euren azalpen osoa muga nazionalen barruan balego bezala, beste herrialde batzuetan gertatzen denak eragingo ez balie bezala.

Eduneko mundu globalean, pentsaezinezkoa da edozein sistema sozioekonomikoren ikuspegiren bat herrialde bakar bateko mugen barruan itxita egotea. Horregatik egin behar da ahalegina pentsatzeko zertan datzan ikuspegi transnazionala zainketen eskariaren eta gizarte-horniduraren azterketan txertatzea.

Edo, bestela esanda, nola ulertu zainketen gizarte-antolaketa globalizazioaren testuinguruan.

Nola konponduko dugu zainketen kontua erdialdeko herrialdeetan, emakumeak, lehen eginkizun hori familietan dohainik egiten zutenak, eskubide osoz hasi direnean lan produktibo profesionala egiten?


Nola egiten zaio aurre gure jendartearen zahartzeari? Mendeko pertsonen gero eta kopuru handiagoari?

Nerabegarora arte haurrak zaintzeko beharrari?

Besterik gabe, lan hori emakumeak betetzen ari dira, gero eta gehiago etortzen ari direnak beste herrialde batzuetatik.

Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak: Estatukoak eta atzerritarrek

(Talde bakoitzaren arabera portzentajea)



Fuente: Anuario de Estadísticas Laborales 2007. MTIN, en "Análisis de la situación laboral de las mujeres inmigrantes. Ministerio de Igualdad, Madrid 2009.

- Ondokoak dira emakume atzerritarren lanari lotutako lau jarduera-sektore nagusiak: ostalaritza (% 20), etxeko lana (% 18), bestelako enpresa-jarduerak (% 14) eta txikizkako merkataritza (% 11).
- Bertakoen artean, sektore nagusiak merkataritza, bestelako enpresa-jarduerak eta ostalaritza dira era berean; etxeko lana, ordea, desagertu egiten da eta osasungintzarekin eta gizarte-zerbitzuekin

loturiko jarduerak ordezkatzan dute.

- Datuok Gizarte Segurantzaren emandako altak besterik ez dutenez islatzen, ez da ikusten zein emakume-proportziok egiten duen lan modu irregularrean zerbitzu pertsonaletan (garbiketa, ile-apainketa), ostalaritzan, pertsonen zaintzan edo etxeko lanean; proportzio hori nabarmen handituko litzateke jarduera-sektore horietan.



Zainketen sektoreko lana nazioartekotzen

ari da: bai instituzionalizatua, egoitzetako, eguneko zentroetako, haur-eskoletako, etxez etxeko laguntza-zerbitzuetako eta abarretako lanaren bidez, sektore publikoak edo enpresek kudeatua; bai familiek zuzenean kontrataturiko etxeko lanaren bidez.

Zainketen hornidura zuzenean dago lotuta migrazioen feminizazio-prozesuarekin; emakumeak gero eta gehiago dira migrazioen buru.

Oso bereziki, etxeko lana da sarrera-ate nagusia emakumeentzat (baita tranpa ere, sarri oso zaila bihurtzen baita hortik ateratzea).

Era berean, emakumeek alde egiteak berrantolatu beharra eragiten du haien etxeetan, eta joan aurretik betetzen zituzten zaintza-eginkizunak birbanatu egin behar izaten dira. Han, amonak, eta batzuetan izebak, arduratzen dira emigratzen duen

emakumearen senideen zainketez.

Aldi berean, nork bere herrialdetik alde egindakoan, harremanak ez dira eteten, hau da, eutsi egiten zaio sorterrian geratutako familiarekiko loturari. Familia transnazionalak izenekoak sortzen dira; horietan, ongizate familiarraren kudeaketaren tamainak herrialdeen mugak gainditzen ditu.

Zainketen transferentzia eta etxe desberdinen arteko loturen eraketa prozesu horri deitzen diogu “zainketen mundu-mailako katea”.

“Cadenas globales de cuidados ¿Qué derechos para un régimen global de cuidados justo?” lanetik jasotako testua, hori oinarri egina. Egilea: Amaia Orozco, Emakumearen Sustapenerako Nazio Batuen Ikerketetarako eta Trebakuntzarako Nazioarteko Instituturako (UN-INSTRAW – NBE EMAKUMEAKen parte) 2010.